




TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Larunbata
2008-06-28

VIURTEA 1.472.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Leidor aretoan ikusgai dagoen Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurpegiak erakusketa.

Amodiozko Gutunen Lehiaketan, Salinas irabazle

VILLABONA loana Alijostes izan da bigarren; lehen billabonatarra, berriz, Alexander Padilla 4

JOSEBA SAIZAR
TXIRRINDULARIA

«Egiten duzun lehen alditik erakartzen zaituen proba da»


VILLABONA Eskualdeko lehen sailkatua izan da Quebrantahuesos proban 4



LT.

HOMOFOBIA, LESBOFOBIA ETA TRANSFOBIA AGERIAN

TOLOSA Berdintasun sailak bultzatuta, EHGMren erakusketa ikusgai dago Leidorren; gaur Askapen Sexueralako Nazioarteko Eguna da 3



E-28

ASKAPEN
SEXUALERAKO
NAZIOARTEKO
EGUNA

LESBIANAK · GAYAK · TRANSEXUALAK

EZ GAUDE SALGAY

EHGAM
GAYTASUNA
www.ehgam.org



Pasa den larunbatean jokaturako probaren une bat. HITZA

Eskualdeko partaide ugari Quebrantahuesos proba gogorrean

Kirola » Eskualdeko 100 txirrindulari baino gehiagok hartu dute parte Pirinioetan egiten den proba gogorrean.

I. TERRADILLOS / N. LATABURU

Pasa den larunbatean izan zen Sa-Sabiñanigon (Huescako Pirinioak, Espainia) Quebrantahuesos txirrindularitza proba ezaguna. 8.000 parte-hartzaile baino gehiagok egin zuten Sabiñanigotik Sabinigorako bidea, Candanchu, Sompport, Marie Blanche, Beleseten, Gabas, Portalet, Hoz eta Sene-

gue, besteak beste gurutzatuz; 205 kilometro guztira. Milaka eskualdunek hartu ohi dute parte aurtan 18 urte bete dituen proban, eta horietatik asko eskualdekoak.

Hain zuzen ere eskualdeko txirrindulari batek emaitza bikaina lortu du aurtengoan, Joseba Saizarrek. 6 ordu, 2 minutu eta 41 segundo behar izan zituen ibilbide osoa egiteko, eta 31. postuan sailkatu zuten. Eskualdeko lehena Saizar berastegiara izan zen, bigarren Imanol Nazabal irurarra (110. postuan, 6:17:04), eta hirugarren geratu zen Abraham Olano txirrindulari ezaguna (116. postuan sailkapen orokorrean, 6:17:40).

«Parte hartzen duzun lehen alditik harrapatzen zaituen proba da»

JOSEBA SAIZAR » Txirrindularia

Txirrindularitza »

Eskualdeko lehen parte-hartzailea izan da Joseba Saizar; sailkapen orokorrean 31.a izan da.

I. TERRADILLOS

Joseba Saizar (Villabonan bizi da, baina Berastegin jaioa, 1978) izan da aurtengo Quebrantahuesos proban eskualdeko lehena. Sailkapen orokorrari begiratu gero ere postu bikaina lortu du, 31.a, hain zuzen ere. 6 ordu 2 minutu eta 41 segundo behar izan zituen proba amaitzeko. «Oso pozik» dagoela egin duen denborarekin azaldu du.

Oso postu onean geratu zara, gustura, ezta?

Oso gustura, ez bainuen espero horrelako emaitza lortzea. Bada-ramatatz urte batzuk proba honetan parte hartzen, eta dagoeneko nahiko ondo ezagutzen dut. Amaierara ahalik eta freskoen iristea da gakoa, eta aurtengoan, hori lortu du.

Zenbagarren aldiz hartu duzu parte?

Aurtengoarekin sei aldiz.

Horrelako denbora onik egin al duzu besteetan?

Duela bi urte ere oso denbora ona egin nuen, baina sailkapenean ez nintzen hain ondo geratu.

Aurtengo proban bero handia egin du, eta horrek asko zaildu du proba.



I.T.

Bai, hala da, bero handia egin zuen, eta horregatik askok lehortuta bukatu eta bertan behara utzi egin beharra izan zuten. Nire kasuan, nahiko ondo egin nion aurre berotari.

Nola prestatu behar da horrelako proba gogor baterako?

Ondo prestatu behar duzu. Nik aurtan ez dut bereziki bire burua prestatu Quebrantahuesos-erako, izan ere, hainbat duatloietan hartu dut parte, eta horietarako egin duan prestaketa baliatu dut proba honetarako.

Nolatan animatu zinen lehen alditik proba honetan parte hartu zenuenean?

Lagun baten bidez ezagutu nuen Quebrantahuesos, eta parte hartu nuen urtetik asko erakarri ninduen, eta uste dutia denei hori gertatzen zaiela, hau da, probatzen dutzu eta ezin duzute utzi.

Zergatik gertatzen da hori?

Oso berezia delako, dagoen giroa-erengatik, eta antolakuntzarenengatik baita ere, oso ondo prestatzen baitute. Bestalde, ez gaude ohituta Pirinioetan bizikletaz horrelako probak egitera.

Jarraitzeko asmorik izango duzu orduan?

Bai, jarraitu nahiko nuke hurrengo urteetan, baina maila honetan zaila izango da.

» QUEBRANTAHUESOS 2008: ESKUALDEKO PARTE-HARTZAILEAK

Aginaga, Jose Karlos (Tolosa) 2.371/7:44:12
Agirre, Endika (Tolosa) 591/6:45:18
Agote, Agustín (Tolosa) 1.657/7:22:52
Aizpuru, Unai (Añoeta) 4.225/8:46:59
Aljostes, Koldo (Ibarra) 1.601/7:21:21
Aljostes, Jon Ander (Ibarra) 2.229/7:40:28
Aranburu, Igor (Orendain) 723/6:51:10
Arandia, Iñigo (Tolosa) 5.633/9:51:18
Arin, Ion (Ikaztegieta) 5.350/9:35:31
Arregui, Oroitz (Zizurkil) 6.387/11:01:13
Arrillaga, Jose Ramon (Leitza) 1.516/7:18:28
Arruabarrena, Eduardo (Tolosa) 528/6:42:14
Arruabarrena, Jose Antonio (Tolosa) 1.071/7:03:23
Arsuaga, Ion Koldobika (Tolosa) 6.572/11:21:01
Azaldegi, Iñigo (Irura) 290/6:30:11
Batalla, Joseba (Villabona) 6.432/11:04:26
Beitia, Julen (Ibarra) 1.026/7:02:06
Beldarrain, Jose Maria (Tolosa) 767/6:52:16

Casares, Xabier (Tolosa) 1.703/7:24:52
Clarke, Simon (Villabona) 1.205/7:08:31
Echarri, Javier M. (Tolosa) 5.707/9:56:06
Elizalde, Mikel (Tolosa) 5.078/9:22:51
Ermina, Jose Miguel (Amezketza) 228/6:24:54
Esnaola, Jose Manuel (Tolosa) 5.440/9:40:19
Esnaola, Luis (Asteasu) 1.257/7:10:27
Esnaola, Jose Manuel (Asteasu) 3.414/8:17:25
Esnaola, Jose Ramon (Tolosa) 3.407/8:17:17
Estensoro, Jon (Tolosa) 374/6:35:26
Etxabe, Jon Ander (Ibarra) 944/6:57:57
Etxeberria, Felix (Albiztur) 3.730/8:28:08
Ezeiza, Iker (Albiztur) 3.733/8:28:10
Fernandez, Gorka (Zizurkil) 3.180/8:10:32
Gabirondo, Andoni (Tolosa) 5.634/9:51:19
Galarraga, Jose Ignacio (Lizartza) 3.675/8:26:08

Garcia, Xabier (Villabona) 3.355/8:15:31
Garmendia, Eneko (Villabona) 3.516/8:21:23
Garmendia, Jesus Maria (Ikaztegieta) 1.761/7:26:40
Gibelalde, Xabier (Irura) 3.454/8:19:27
Gil, Luis (Tolosa) 510/6:41:44
Goikoetxea, Pello (Tolosa) 5.714/9:56:23
Gorria, Carlos (Tolosa) 853/6:55:09
Guillen, Jon (Villabona) 495/6:41:15
Huici, Jose Angel (Irura) 4.727/9:06:00
Insausti, Jose Maria (Ikaztegieta) 3.304/8:14:14
Iraola, Jose Antonio (Tolosa) 620/6:47:06
Irazustabarrena, Jon (Tolosa) 1.775/7:27:08
Isasti, Andoni (Tolosa) 423/6:37:58
Iturbe, Jose Ignacio (Irura) 5.266/9:31:26
Labaka, Antxon (Añoeta) 195/6:23:27
Larrarte, Jose Antonio (Irura) 308/6:31:59

Larrarte, Juntxo (Irura) 1.276/7:11:23
Lizeaga, Alberto (Tolosa) 3.294/8:13:59
Lizartza, Arkaitz (Ibarra) 794/6:53:07
Lizaso, Andoni (Irura) 4.909/9:14:56
Maiz, Igor (Ikaztegieta) 1.980/7:33:09
Maiza, Josu (Ibarra) 5.294/9:32:40
Marin, Ion (Tolosa) 903/6:56:42
Martin, Iban (Tolosa) 924/6:57:10
Martin, Gorka (Tolosa) 261/6:29:09
Mateos, Xabier (Tolosa) 6.130/10:03:48
Mitelena, Jon Ander (Villabona) 2.013/7:34:23
Molina, Manuel (Irura) 4.746/9:06:55
Mujika, Idoia (Ibarra) 3.884/8:33:43
Nazabal, Imanol (Irura) 110/6:17:04
Olano, Iosu (Irura) 799/6:53:19
Olano, Abraham (Tolosa) 116/6:17:40
Otamendi, Iker (Tolosa) 1.979/7:33:09
Oyanluce, Blas (Ibarra) 809/6:53:36
Paz, Iñaki (Ibarra) 1.917/7:31:07
Rivero, Migule Angel (Zizurkil) 5.481/9:42:52
Rodriguez, Javier (Irura) 751/6:52:00

Romero, Raul (Ibarra) 4.286/8:49:04
Roteta, Oier (Asteasu) 393/6:36:03
Roteta, Arkaitz (Asteasu) 460/6:40:14
Royo, Aitor (Villabona) 1.392/7:14:59
Sagastume, Iker (Tolosa) 1.285/7:11:38
Saizar, Txemi (Tolosa) 204/6:23:33
Saizar, Joseba (Villabona) 31/6:02:41
Saizar, Iker (Berastegi) 945/6:57:58
Seara, Xabier (Zizurkil) 4.074/8:40:43
Sorarrain, Jose Miguel (Tolosa) 3.656/8:25:52
Tejeria, Jon (Añoeta) 332/6:48:39
Urkola, Agustín (Zizurkil) 387/6:35:57
Valle, Juan Antonio (Alegia) 310/6:32:07
Valle, Benito (Alegia) 2.537/7:48:44
Villa, Juan Ramon (Villabona) 5.224/9:29:37
Villa, Aimar (Villabona) 775/6:52:31
Zufiria, Argoitiz (Tolosa) 2.445/7:45:59
Zufiria, Ricardo (Tolosa) 3.770/8:29:21

Askatasun sexualaren egunarekin lotuta, erakusketa

Gizartea » HEGAMen argazki bilduma ikusgai da egun hauetan Leidor antzokian; zine egitarau berezia asteburuan.

ERREDAKZIOA

HEGAM elkartearen *Homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurpegiak* izeneko argazki erakusketa ikusgai da Leidor antzokiaren sarreran. Ekimen hau Udaleko Berritasun sailak jarri du martxan. Izan ere, gaurkoa, Askatasun Sexualerako Eguna da. Bestalde, gai honekin lotuta, bi film izango dira ikusgai asteburuan. Alde batetik, gaur 17:30ean, Neil Jordanen *Desayuno en pluton* filma proiektutuko dute. 22:30ean berriz, Eka-chai Uekrongtham-en *Beautiful boxer*. Etzi ere film berak izango

dira ikusgai, lehendabiziko saioa 19:30ean izango da, eta bigarrena berriz, 22:00etan.

Homofobia, oraindik ere arazo EHGAMk 30 urtetik gora daramatza heterosexismoaren aurka egiten. Garaian arabera, egoera aldatuz joan da, baina homofobia oraindik ere arazo izaten jarraitzen du. Hau gaixotasun psiko-sozial gisa deskribatzen dute elkarteak, non gorrotoa zaien homosexualei. Gauza bera gertatzen da, lesbiana eta transexualekin. Gaixotasun hauek faxismo hitz generikoarekin ere ezagutzen dira, eta bata bestearen arteko gorrotoan oinarritzen da.

Leidorren, historian zehar nahiz gaur egun ezagunak diren pertsonaien esanak biltzen dira. Erakutsiz, oraindik ere «gaixotasun» hau askok pairatzen dutela.



Pertsanaia ezagun askoren esanak biltzen dira Leidorreko erakusketan. E.E.

Lillo izango da datorren denboraldian ere Realeko entrenatzaile

Futbola » Urtebeteko kontratua sinatu du tolosarrak Gipuzkoako futbol taldearekin; eta luzatzeko aukera du.

ERREDAKZIOA

Juan Manuel Lillok Realaren entrenatzaile izaten jarraituko du. Atzo arratsaldean sinatu zuen bere kontratu berria. Urtebeteko iraupena du eta igoera lortuz gero beste urte betez luzatuko litzateke.

Apirilean hasi zen tolosarra Reala entrenatzen. 26 urte daramatza entrenatzaile lanetan. Aurretiaz, han hemenka ibili da bigarren mailako taldeak, nahiz maila baxuagoak entrenatzen.

Aurtengo denboraldian, egoera oso zaila zegoenean hartu zuen taldea Lillok, eta ez zuen lortu amesten zuten hori editea. Hau da, mailaz igotzea. Orain, bere esku egongo da berriro ere Gipuzkoako futbol taldea, eta xede bera jarraituz, lehendabiziko mailara igotzen saiatuko dira.

Blues doinuak, gaur, Plaza Berrian eta Frontonen

Musika » Little Charlie and the nightcats eta Tres mil hombres taldeek emango diote amaiera aurtengo Tolosand blues jaialdiari.

ERREDAKZIOA

Hasi bezain pronto iritsi da Tolosand blues azken txanpara. Gaur izango baitira jaialdiko azken bi kontzertuak. Lehendabizi, Amerikar Estatu Batuetako talde bat ariko da Plaza Berrian, *Little Charlie and the nightcats* hain zuzen ere. Ondoren, 00:30ean, Tres mil hombresekoak entzun ahal izango dira Fronton kafetegian.

Estatubatuarren emanaldia da jaialdi honetako emanaldi bere-



Little Charlie and the nightcats taldea izango da gaur Plaza Berrian. HITZA

ziena, 30 urte baino gehiagoko bizitza eta bluesa baitu talde honek. Talde honen eritmo eta mugimenduan oinarritutako bluesak lotura zuzena du katu-kontrapaseekin. Etengabe jartzen dute arreta, ikasten dute eta jotzen duten estilo ezberdinetan bizitza erlaxatuak dituztela dirudi.

30 urte inguru pasa dira Little Charlie Baty gitarrak-joleak eta Rick Estrin harmonika-joleak eta abeslariak beraien lehen taldea sortu zutenetik. Baita, Chicagoko blues gogorra eta Texasako swing eta jazz berrasmatu eta rockabilly, protorock'n roll, swing jaziak Estrinen abestien letra originalekin nahastu zituztenetik. Beraien disko berria, *Nine lives* da, karrera ikusgarri honen azken al-

buma. Little Charlie Baty gitarrak-joleak eta ahots guztiz berezia duen Rick Estrin harmonika-jole eta abeslariak gidatutako talde honen bederatzi bizitza horiek, izenburuak berak dioten bezala, swing, jump eta bluesa erabateko maitasunez lantzen dituzten musikari beterano hauen bederatzigarren lana osatzen dute.

Gaueko bigarren emanaldian madrildar batzuk izango dira taula gainean. Jazz, blues, soul, funk, reggae, swing, rithm'n blues... afro-amerikar musika du ardatz laukote honek. Estilo beltzak fusionatu eta horren inguruan inprobisazioa egiten dute. Urteetako esperientzia bizkar gainean daramate eta denbora horretan hainbat eszenatoki eta aretotan jo izan dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Maitena Salinasek jaso du Amodiozko Gutunen Lehiaketaren lehen saria

Villabona» Ioana Alijostes izan da bigarrena, lehen billabonatarra Alexander Padilla eta gazteetan onena Goiatz Labandibar.

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalak banatu ditu Aurtengo Amodiozko Gutunen Lehiaketako sariak. Donostian bizi den Maitena Salinas beasaindarrak lortu du lehen saria...ezagutzen zaitut eta lanarengatik. 350 euro eta lore bat jaso ditu. Bigarren saria Ioana Alijostes tolosarrentzat izan da, *Emagalduek enpresa gizonari* lanarengatik. Honek 225 euro eta lore bat jaso du. Alexander padillak lortu du berriro billabonatar onenaren saria, *Maitasunaren errauntsak* lanarengatik. 200 euro eta lore bat jaso du sari bezala. Gazte onenaren saria Goiatz Labandibar oiartzuarrak jaso du, *Urriko poema* lanarengatik. 150 euro eta lore bat izan dira berarentzako.

Maialen Abaigar Euskara eta Hezkuntza zinegotzia eta Maite Arregi euskara teknikaria izan ziren sari banaketan. Saridunen aldetik, bi lehenengoak bertan izan ziren, baina Alexander Padillaren ordez bere arreba Arantza izan



Goian, ezkerretik hasita, Maitena Salinas, Ioana Alijostes eta Arantza Padilla; behean, ezkerretik hasita, Maialen Abaigar eta Maite Arregi. I. GARCIA

zen saria jasotzen. Goiatz Labandibarrek ezin izan zuen agertu sari banaketara. Epaimahai lanetan, ohikoak bihurtu diren Juan Kruz Igerabide eta Karlos Linazasoro idazleak aritu dira.

Tratu txarrak, emagalduek eta tabakoa

Oso gustura zegoen Maitena Salinas jasotako sariarekin. «Aurretik Uxola saria irabazita neukan, baina urte asko ziren ez nintzela be-

rriro aurkezten lehiaketa batera», azaldu du irabazleak. Bere gutunetan tratu txarren aurkako salaketa egiten du. «Tratu txarrak jasotzen dituen emakume batek idazten du eta bertan agertzen den mezua ba-

koitzak norberarekiko autoestima izan behar duela da».

Ioana Alijostesek ere aurretik Uxola saria lortu zuen orain urte batzuk. Txikitatik du gustuko idaztea tolosarrak. Aurkeztutako gutuna, enpresa gizon batetaz maitemintzen den emagalduek idazten ditu.

Alexander Padillaren lanak, bere Arreba Arantza azaldu zue-

Lehen bi saridunek, Salinasek eta Alijostesek, Uxola saria irabazita zuten aurretik

56 lan aurkeztu dira, orain arteko kopuru handiena; horietatik hamar Tolosaldekoak

nez, puntu berezia bat du. Izan ere, azkenerarte ez da azaleratzen amodiozko gutuna zeini zuzendua den. Eta ez da pertsona bat, tabakoabazik. Dependentsaren inguruan idatzitako lana aurkeztu du aurtengoa Padillak.

Guztira 56 lan aurkeztu ziren lehiaketara, orain arteko kopuru handiena. Gazte onenaren sarirako, 25 urte bitartekoak, 29 lan aurkeztu zituzten. Gipuzkoarrak izan ziren nagusiki lanak bidali zituztenak, 53 izan baitziren. Bizkaitarrak bi izan ziren eta arabar bat. Tolosaldekoak 10 izan ziren lanak aurkeztu zituztenak eta horietatik Aiztondo bailarakoak lau.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

Gipuzkoako Txapelketa errendimendu mailan lortu dute Behar-Zanako Labakak eta Erasunek

Villabona » Behar-Zanako alebin mailakoen urtea borobila izan da, hainbat txapelketa garrantzitsu irabazi baitituzte.



Erasun eta Labaka, txapelekin. HITZA

ERREDAKZIOA

Behar-Zana kirol elkarteko Labaka-Erasun bikotea Gipuzkoako Errendimendu Txapelketa txapeladunak geratu da alebin mailan. Honetaz gain ere, Errenteriako Memorial Zuloagako txapelak ere bereganatu dituzte. Urte borobila izan da aurtengoan Behar-Zanako alebin talde osoarena: Gipuzkoako eskolarretan txapeladun, Errendimendukoan ere txapeladun, Errenterian txapeladun, V. HITZA Txapelketan finalerdietara... Behar-Zana elkartetik lorpen hauengatik zoriondu dituzte.

Bestalde, Behar-Zanako pilota-eskolako haur guztiak txango burutu zuten Iruñeako Oberena kirol elkartekoan aurka pilota partidak eta egun pasa polita burutzeko. Villabonatik bi autobus joan ziren eta han beste hainbesteko guraso-pilotariek elkartu eta 15 partida jokatu zituzten. Giro ederraz gozatzear gain, pilotan eginez eta lagun berriak egiteko aukera bikaina izan zuten.

Santioetako pilota txapelketak Santio festetako pilota txapelketek, hau da, pala, frontenis eta eskuz federatugabeenak, aurrera jarraitzen dute. Aurtengoan arrakasta izan da eskuz binakoan 12 bikotek parte hartu baitute eta beste 12 pilotarik frontenis txapelketan. Egunero 18:30etik aurrera kiroldegiko frontoian partida ezber-

dinez gozatzeko aukera izango da. Gainera, eskuz binaka federatuen txapelketa uztailaren lehen, 8an eta 22an jokatu dira, Amasako pilotalekuan 18:30ean hasita. Aurtengoan Nafarroako, Arabako eta Gipuzkoako 11 bikotek parte hartuko dute.

Jesusen Bihotzakoek saria lortu dute 'Osasunkume' Programan

ERREDAKZIOA

Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleek *Osasunkume* Programara bereaiek burututako bost proiektu desberdin aurkeztu zituzten eta 4A taldekoek lehenengo saria irabazi zuten. Hauen proiektua, odol-emaile berriak bilatzeko oinarritua izan zen, kartelak egin eta herrian zehar banatu zituzten propaganda egiteko. Horren ondorioz, lortu zuten pertsona berriek odol ematea.

Ekainaren 18an, Lazkaoko ikastolan festa bat antolatu zuten sari banaketa egiteko eta bertara joan ziren 4A taldekoak, beraien irakasleekin, saria jasotzera. Saria Port Aventura bidaia ikasgela guztiarrentzat izango da.

Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleek, Eusko Jaurritzaren eta Prebentziorako Udaltaldean laguntzari esker, ikasturte honetan ere *Osasunkume* Programa eraman dute aurrera.

Osasunkume drogamenpekoen prebentziorako programa bat



Lazkaoko Ikastolan jaso zuen Jesusen Bihotzakoek saria. HITZA

da. Lau ardatzetan oinarritua dago: autoestima, bizitzarako prestakuntza, drogak eta ohitura osasuntsuak, hau dena, osasunaren dimensio fisiko, psikiko eta soziala kontutan hartuta. Haurrak

osasuntsu bizitzen ikas dezaten. Kurso bukaeran lehiaketa bat antolatzen dute Euskadi mailan, proiektuan parte hartu duten ikasle guztien artean eta horretara aurkeztu ziren Jesusen Bihotzakoek.

Ekain beltza berriekin

eleBERRI beltzAekin



Utzi ezinik irakurtzeko modukoak

Lau libururik:

ekainak 7, 14, 21 eta 28



+ 2,9€



IKASTARO TRINKOAK

INGELES - FRANTSESA
ALEMANA - ITALIERA
TXINERA



UDARA

UZTAILA-ABUETUA

Egunero ordubete, bi edo hiru ordukoak

CAE MAILA: 11:00etatik 14:00etara
Jatorrizko Irakaslea

MATRIKULA IREKITA DAGO



(Sn.Sn. Ondarreta)

DONOSTIA: Infanta Cristina Etorbidea 15, Itxas-Lore etxea, Ondarreta - Tel/Fax: 943 31 07 53 - 943 31 37 90 - INTXAURRONDOKO: Pedro Axular 4, Behea - Tel/Fax: 943 27 24 63 - TOLOSA: Martin Jose Iraola 8, 3-Ezk. Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 /Kondeaneko Aldapa, 30 - Tel/Fax: 943 67 47 33 / Nafarroa Etorbidea 12 entlo, Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 - LASARTE: Pablo Multiozabal 2, 1. solairua - Tel/Fax: 943 37 27 81 - URNIETA: Dendaldegi, 6 Behea - Tel/Fax: 943 55 58 58 - VILLABONA: Kale Berria 46, 2-B - Tel/Fax: 943 69 63 73 - ALEGIA: San Juan 46 - Tel/Fax: 943 65 57 26



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



ziklo guztiak euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanizazio bidezko Produksioa (ikasi eta lan) 3 urtetan lan finko batekin
- Informatika Sistemien Administrazioa
- Administrazio eta Finantzak
- Eraikin eta Prozesu Instalazioen Mantenimendu eta Muntadura
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Metal Eraikuntza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: TOLOSALDEA idatziz 5533ra



Aratz Irazustabarrena, Imanol Irazustabarrena, Iñaki Artola eta Bertol Murua Teruelen. HITZA

Eskualdeko lau bertsolari gazte V. Bertso Paperen Lehiaketan sarituak

Bertsolaritza » Sabino Arana Fundazioaren lehiaketan maila ezberdinetan bigarren postua lortu zuten laurek.

ASIERIMAZ

Sabino Arana Fundazioaren V. Bertso Paper lehiaketako irabazle guztiak gipuzkoarrak izan dira aurten eta lehen aldiz.

Euskal Herria mailako lehiaketa honetako irabazleak Teruelen (Espainia) egon berri dira. Hauen

artearen eskualdeko lau bertsolari gazte aurkitzen dira: 3 alegiar eta tolosar bat.

Saridunak eta saria

Adinaren arabera lau kategoriatan banatzen da Sabino Arana Fundazioak antolatzen duen bertso paper lehiaketa. Eskualdeko lau bertsolari gazteek lau maila hauetan bigarren postua lortu dute. Hauek dira eskualdeko saridunak: A mailan, Alegiako San Juan ikastetxeko Aratz Irazustabarrena. B kategorian, Tolosako Samaniegoko Herri Ikastetxeko Bertol Murua. C kategorian, Alegiako Aralar institutuako Iñaki Artola eta D mailan institutu bereko Imanol Irazustabarrena. Bizi eta gozatu

duten saria berriz Teruelera lau eguneko bidaia izan da.

Bi bertso saritu

Aratz Irazustabarrenak honela heldu zion gaiari bigarren bertsoan. Gaia: *Espero ez duzun oparia jaso duzu urtebetetze egunean. Bertsoa: Play staitona, liburu batzuk/ CD bat eta txandala/ Gosaldu, jantzi, hortzak garbitu/ ta eskolara berrehala/ Handik etxera etorri naiz ta/ amatxok esan dit hala/ nahiz gaz eguz izan laster batean/ anaita izango dudala.*

Bertol Muruak, berriz, honela erantzun zion bere bertso batean gai berari: *Gaur hamar urte betetzen ditut/ Eguna argitu dut alai/ Ohetik jaiki aita ta ama/ Ni zoriontzekotan zai/ Musu handi bat, opari eder bat/ Nik ezin ahaztu nolana/ Zuek asko maite nauzue eta nik zuek ere bai.*

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna eskaintzen da, udaran umeak zaintzeko. 615 72 0617.

■ **Zaintzailea.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. 627 46 5810.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 00 11/634 91 94 82.

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa salgai. 669 67 36 49.

Gutunak

Lotsagarria

Lotsagarria da bai Leaburu-Txaramako Udaleko ordezkariak herriko jaien inguruan azaldu duten jarrera.

Alde batetik Txaramako festetako batzordeko kideei hainbat oztopo ezarri dizkie festak aurrera eramanez ahal izateko. Ez al gara Txaramakoak, Leaburuakoak bezalaxe herritarrak? Ez al ditugu eskubide berberak? Udalak eduki duten jarrera ikusita ez zekoa dirudi.

Hala ere Txaramako auzotarrak, festak antolatu genituen jai eta lagun giro paregabean, eta horri begira, Non zeuden Udaleko ordezkariak? Argi daukagu bertara ez direla azaldu interes ez dute-lako: Lapurrak azaltzen baitira lapurtzeko dagoenean!

Bestetik berriz, Leabururen duten jarrera erabat ezberdina da. Hemen eroso sentitzen dira lagunak eta familiakoak baitituzte. Horrela jai batzuk aurrera eramateko nahikoak direla ikusita, euren artean antolatu dituzte herriko jaiak, eta inongo lotsarik gabe San Pedro jaietaz baliatu dira, jauntxo festa, Zaldi Eguna, antolatzeko. Non daude San Pedro jaietako kartelak? Eduki duten jarrera salagarria dabenetan:

Non egon da deialdi publikoa herriak parte har dezan San Pedro jaien antolakuntzan? Zeintzuk dira «gazte talde bat gara» sinadurarekin, herriko zenbait laguntzaileei laguntza eskatuz bidalitako idatzian azaldu direnak? Zergaitik laguntzaile batzuei ez zaie laguntza eskatu? Ez al dira gustokoak? Zergaitik nahastu dute Zaldi Eguna, herriko afari/mus txapelketarekin? Zaldi Eguneko egiarauan euskaraz gain, zergaitik idatzi duzue hizkuntz arrotzean? Zergaitik

Zaldi Eguneko karteletan ez da azaltzen Leaburu-Txaramako Udala laguntzaile bezala?

Gure harridurarako, lotsa eta amorrazioa sortzen digu, M^a Cruz Aguirre Rivera andereak, bere burua alkatetzat duenak, festetako egitarauarekin bidali duen idatzian, orri ofizialetan orainarte azaltzen zen Euskal Presoak Euskal Herrira ikurra kendu egin du. Nor zara zu udalbatzar batean onartutako erabaki bat bertan behera uzteko? Gero eta garbiago daukagu Leaburu-Txaraman demokrazia zera!

M^a Cruz Aguirre Rivera anderearekin jarraituz, zergaitik ez duzu eduki portaera berdina Txaramako auzotarrekin? Zergaitik ez duzue gonbidatu Txaramakoei, jai zorionsuak izan ditzagula Txaramako jaietan, Leaburukoei bezala?

Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak erabat salatzen digu, Udalak jaien antolakuntzan eduki duten jarrera, lotsagarria baita Txaraman oztipoak jarri izana eta Leabururen euren lagunei eta familiekoei emandako eskubideekin euren jaiak antolatzea.

Herritarren eskubideak urratu dituzte, hau al da zuen demokrazia?

Azkenik, Leaburu-Txaramako ezker abertzalea, bertan ez dauden preso eta iheslariekin ez dago ahaztua, eta idatzi honen bidez dei egiten dizuegu, ekainaren 28an, gaur, herri afariaren aurretik, preso eta iheslarien eskubideen aldeko argazkian parte hartzea. Bide batez, herritik hainbat kilometrotara urrunduta duten Andoni Otegi bere urtebetetze egunean zorionduko dugu. Euskal preso eta iheslari politikoak etxera!

Leaburu-Txaramako ezker abertzalea.

Laburrak

Uztailaren 2an sendagile kontsultarik ez da egongo

ELDUAIN » Datorren asteazkenean, uztailaren 2an, Elduainen ez da sendagile kontsultarik izango. Hurrengo astean beti bezala izango da berriz, hau da, 09:00etatik 10:00etara Ibarra anbulategian. Ordua hartu ondoren egingo da kontsulta eta anbulategiko telefonoa, 943 67 24 11 zenbakia da.

Odola emateko aukera etzi kiroledgian 19:00etan

IKAZTEGIETA » Odol Emate elkarteak jakinarazi duenez Ikaztegieta odola emateko aukera egongo da ekainaren 30ean, astelehenean. Elkarteak azaldu duenez, odol emateko aukera 19:00etatik 21:00etara egongo da, kiroledgian jarriko dute horretarako aukera.

Festa Batzordearen bilkura uztailaren 2an 20:00etan

IBARRA » Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak, San Bartolome jaien antolaketaarekin jarraitu asmoz uztailaren 2an, asteazkenean, Festa Batzordearen bilkura deitu du 20:00etan udaletxe Bilkura Aretoan. Herritarrak bilkuran parte hartzeko animatu eta gonbidatu ditu Udala Batzordeak.

Gaur 21:00etan bertso afaria Urepele Elkartearen

BERASTEGI » Gaur bertso afaria egingo dute Urepele Elkartearen 21:00etan. Berastegi bertso eskolak antolatu du ekitaldia eta bertan Luze, Elizasu, Riaño eta Iñigo Gorostaur bertsolariak jarriko dituzte kantuan. Gai jartzen bertso eskolako ikasleak ariko dira.

ARAMBURU
Salgai (Alkiza). Etxe handia lursailarekin, 4.000m², guztiz eraberritua.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza, soldadu kalean, sartzeko moduan. (231.400€ / 38.500.000 pzta)
Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Nagusia kalean, 1. Igogailuarekin sartzeko moduan eta bestea eraberritzeko eta igogailurik gabe. (193.000€ / 32.000.000pzta negoziagarriak)
Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Martin Jose Iraola kalean.
Salgai (Ibarra). Etxebizitza, San Ignazio auzoan, sartzeko moduan. (211.000€ / 35.000.000pzta)
Salgai (Tolosa). Izaskun auzoan. (234.400€ / 39.000.000pzta)
Salgai (Villabona). Etxebizitza, guztiz eraberritua, Amasan.
Salgai (Legorreta). Etxebizitza eraberritzeko.
Salgai (Ibarra). Lokala, Euskal Herria kalean.
Salgai. Garajeak, San Frantzisko eta Amarozen (Tolosa) eta Idojagan (Ibarra).
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza, lurre auzoan eta San Frantziskon.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batxilerr Zaldibian.
Alokatzeko (Ibarra). Pabiloi industriala, Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
...ETA ORAIN
PROBIGURRAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Gorritarango Eguna ospatuko dute bihar Basa-Kabin

Leitza » Festa 10:00etan hasiko da eta gauerdira arte iraunen du eta urtero bezala, zenbait opari zozketatuko dituzte.

NAIARA GARZIA

Bihar Gorritarango Eguna ospatuko dute Basa-Kabin egun osoan zehar, auzo horretako bizilagunak antolatuta. Festa goizean hasi eta gauerdian amaituko da.

10:00etan emanen diote hasiera egunari, Basa-Kabiko kaperan eginen duten mezarekin. Kaperan urtean soilik egun honetarako irekitzen dute. Meza amaitu ondoren Arria eta Rekondo aizkolariak elkarren aurka ariko dira eta ondoren sokatira saio bat eginen dute Gorritarangoek. Tele Caballero eta Malen Larrea antolatzaileek

azaldu dutenez, «ezkonduen eta ezkongabeen artean egiten da».

Bazkalaurreen Murua eta Zubeldia bertsolariak bertsotan ariko dira eta 14:00etan bertso bazkaria eginen dute Basa-Kabi jatetxean. Antolatzaileen arabera, oraindik zehatz-mehatz zenbat lagun bilduko diren ez dakite, azkeneko momentuan ere jendeak txartela erosten baitu. «Joan den urtean 70 inguru bildu ginen».

Arratsaldean, ekitaldi ugari

Arratsalderako ere egitarau oparoa prestatu dute. 17:00etan Mus Txapelketa jokatu dute, eta bertan herritar guztiak parte hartu ahal izanen dute. «Joan den urtean 20 bikote inguru aritu ziren», diote antolatzaileek.

19:00etan dantzaldia hasiko da Koldo Mauleonen eskutik eta 00:00etan amaituko da. Halere



Luisenbordako Patxi Baraibar, Txintxurrin Txapelketan, 2006an. J. ASTIBIA

» EGITARUAU

- **10:00etan.** Meza Basa-Kabiko kaperan.
- **Ondoren.** Aizkolariak (Arria eta Rekondo), sokatira eta urmeentzako jokoak.
- **Bazkalaurreen.** Bertsolariak: Murua eta Zubeldia.
- **14:00etan.** Bertso bazkaria.

- **17:00etan.** XXIII. Mus Txapeleketan.
- **19:00etan.** Dantzaldia Koldo Mauleonen eskutik.
- **20:00etan.** XXII. Txintxurrin Txapelketa.
- **20:30ean.** Zozketa.
- **Ondoren.** Txokolata denentzat.

tartean ere beste zenbait ekitaldi eginen dituzte. Txintxurrin Txapelketa ere urtero egiten dute, eta aurten 20:00etan hasiko da.

20:30ean zozketa eginen dute eta ondoren txokolata banatuko zaie denei. Honez gain, egun osoan zehar trikitilariak bertan izanen dira, festa alaitzen.

Zozketa

Zozketan opari ugari banatuko dituzte. Lantaron bainuetxean aste-buru bat, argazki kamara digital bat, Bxigarri dendak prestatutako saskia, 2 laguntzako afaria Musunzar jatetxean, MP4 bat, bizkarrerako almohadilla bat eta plater jaurtiketarako set bat.

Honetaz gain, antolatzaileek azaldu dutenez, «ustekabeak» ere izanen dira. «Joan den urtean bainuetxean izan zirenak oso gustura itzuli ziren eta horregatik berriro opari hori zozketatzea erabaki dugu». Txartelak han bertan erosi ahaliko dira eta zozketa egiten den orduan banatuko dira sari guztiak. Honen arabera, saritutako zenbaki baten nagusia bertan ez bada, saririk gabe geldituko da eta beste zenbaki bat aterako dute. «Halere, joan baino lehen txartelean izena eta telefono zenbakia jarri gero eta guri emanez gero, txartel hori saritua ateratzen bada, saria mantenduko dugu».

Gaur ere, 'Bihar osteguna da'

Antzerkia » Atzo antzezlan honen lehenengo emanaldia egin zuten eta gaur bigarren zoz eskainiko dute, 19:00etan.

N. GARZIA

Atzo *Bihar osteguna da* antzezlanaren lehenengo emanaldia eskaini zuten 21:00etan zinean, eta gaur ere beste bat eskainiko dute, 19:00etan. Antzezlan Leitzako Txinparta taldeak prestatu du.

Azaroa aldean hasi ziren proiektu honekin. «Gidoi desberdinak irakurri nituen» dio Lur Kortaz zendariak, «eta azkenean Rafael Mendizabalaren *Mañana sera jueves* antzezlanaren eruduz hartuz, aurrera jarraitu genuen».

Horretarako Maite Saroberekin kontaktuan jarri ziren eta itzulpena egiteko eskatu zioten. «Nibartean taldekideei istorioa kontatzen eta ariketa desberdinekin hasi nintzen». Abendu aldean hasi ziren entseguekin.

Partaide guztiak herrikoak dira: Jaione Mariezkurrena, Maitane Mariezkurrena, Beñat Huarte, Maite Perurena, Juan Barriola, Orkatz Erbiti, Jokin Baucis eta Koldo Lebron dira antzezlan honetako aktoreak.

«Antzezlanarekin pixkanaka-pixkanaka gozatzen hasi ginen,



Txinparta taldekoak, azkeneko entsegua egiten. N. GARZIA

barre algarra asko egin ditugu Leitzako zinemaren. Gure gora-beherak ere izan ditugu, eta Karrapean irratan ere izan gara emanaldian grabaketa pare bat ateratzen baitira, jendeak sorpresaz hartuko ditu ziurrenik».

Antzezlanaren estreinatze data jarri zuten atzoko egunean pentsatu zuten. «Dena den jendea iri antzezlanaren ikusteko beste aukera bat ematearren gaur ere 19:00etan eginen genuela erabaki genuen». Izan ere, duela 2 urte Txinparta taldearekin ere *Haz-*

parneko anderea antzeztu zuten eta Kortaren ustez, «saio bakarrekin moz xamargelditu ginen eta horregatik 2 egitea erabaki dugu».

Emanaldirako eta eszenografia apaintzeko herritar desberdinak izan dituzte laguntzaile, dena behar bezala ateratu dadin.

«Taldea guztiak ilusio handiarekin aurrera ateratu duen lana da hau eta kontutan izanik aktore bakoitzak bere lana duela izugarritzko esfortzua izan da, jendeak ikusiz gozatuko duela argi daukat», dio Lur Kortak.

Herriarteko finaletik kanpo, Aurrerakoak

Pilota » Uharteluruña taldearen aurka jokatu zuten finalerdietako bigarren itzulia, azteazkenean, Iruñean.

N. GARZIA

Joan den asteazkenean Iruñean finalerdietako bigarren itzulia jokatu ondoren, leitzarrak finaletik kanpo gelditu ziren, Uharteluruña taldea sailkatu zelarik.

Alebinek 18-1 irabazi zuten, eta pilota eskolatik azaldu dutenez, «partida bikaina» jokatu zuten.

Haur-kategoriakoek 18-15 galdu zuten. «Ikragarri gogorra izan

zen. Galdu arren, guri tanteorik hoberena ateratzea interesatzen zitzaigun eta horrela izan zen. Oraindik ere irabazteko aukerak genituen».

Baina hirugarren partidaren aukera guztiak zapuztu ziren, 22-19 galdu baitzuten jubenilek. «Orduan nahitaz azkeneko partida irabazi beharra genuen, tanteoa partida kopuru bera irabazi ondoren egiten baita. Gainera, oso zaila ikusten genuen irabaztea». Azkeneko partida 22-9 galdu zuten.

Pilota eskolatik azaldu dutenez, «hagitz triste gelditu ginen, finalak azkeneko unean ihes egin baitugu, baina pozik gaude finalerdietara iritsi garelako».



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



22°
15°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 22°
HOTZENA 16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Zizurkil.** Koadrila Eguna: Joxe Arregi Plazan bazkaria 14:00etan, Benta zaharreko mutil alaiak taldeak alaituko du bazkalostea, musika eta kantuak abestuz. Norberak bere bazkaria eraman beharko du. Festa batzordeak aukiak, mahaiak eta sagardoa jarriko ditu.
■ **Tolosa.** Sanblazpiko auzo elkar-tearen X. urtemuga: futbol txapelketa eta kontzertuak.
■ **Tolosa.** Gran Royal zirkoa Igarondo igerilekuak zeuden tokian, gaur eta bihar.

Musika

■ **Tolosa.** Bonberenea-KMK 08 festa: 19:00etan kalejira erraldoiak, buruhandiak, Mulanbo eta Bonberenea txarangarekin; 21:00etan Bonberenean Desordutan eta In de kitxen taldeen kontzertua eta DJ Bull. Sarrera doakoa izango da.
■ **Tolosa.** Tolosa kantari eguerdiko 12:00etan Tontokaletik abiatuta, Amaroako eta Tolosako hainbat elkarteren eskutik.
■ **Tolosa.** Tres mil hombres taldearen kontzertua 00:30etik aurrera Fronton kafetegian eta Little Charlie and Nightcats taldeek 22:30etik aurrera Plaza Berrian, Tolosandblues jaiaren barne.

Zinema

■ **Tolosa.** *Beautiful boxer* filma emango dute Leidorren 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Asteasuko herriko plazan dagoen karpa erraldoian elkartu ziren koadrilak bazkaria egiteko. I. GARCIA

Koadrila Eguna izan zuten atzokoan Asteasuko sanpedroetan. Gaur, Aitzondo bailarako herrian egiteaz gain, Leaburun Zalid Eguna izango dute eta Tolosako Urkizu auzoan auzo afaria izango dute.

Lagunarteko giro ederrean

ERREDAKZIOA

Badoaz aurrera Asteasuko San Pedro jaiak. Atzokoan Koadrilen Eguna izan zen. 60 bat lagun elkartu ziren herriko plazan jarrita dagoen karpa erraldoian, beste urteetan baino zerbait gutxiago. Bazkaria koadrilek antolatuta zuten eta edaria Udalak jarri zuen. Arratsaldean jokorako garaia izan zen.

Gaurkorako Asteasun berritasunik izango da, I. Gastronomía Erakusketa Herrikoia egingo bai-

tute. Patata tortilla egin beharko dute sukaldari lanetan ariko direnek. Gero, 13:00etan, sari banaketarekin, tortillen eta sagardo dastaketa izango da. Horrez gain hainbat ekitaldi izango dira egunean zehar: gaztetxoaren goitiberak, mus txapelketa, zezen txiki eta ponyak.

Zaldi Eguna

Leaburun gaur ekingo diete sanpedroei. Bereziki interesgarria izango da gaur egun guztirako antolatuta duten Zaldi Eguna. Hainbat

ekitaldi izango dira zaldiaren inguruan: ibilaldia, perraketa, western heziketa eta heziketa naturala, zaldi erakustaldia eta astoa eta zaldia-aren arteko apustua. Bazkari eta afari herrikoiak ere egingo dituzte.

Tolosako Urkizu auzoan ere festa ekitaldiak antolatu dituzte gaurkorako. Hala, 21:00etan auzoko afaria egingo dute eta ondoren trikitilariak izango dituzte eguna giro alaietan amaitzeko.



943 671 427

Abian da tropela.net: Tourra, sarrea, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea doan.

izena emateko ordua: larunbata, uztailak 5, 12.00etan

tropela.net

Aurtengoan ere, Tourreko tropela Kanariar irletara!

Abian da tropela.net: Tourra, sarrea, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea doan.

izena emateko ordua: larunbata, uztailak 5, 12.00etan

tropela.net